

# IKASLE GUZTIAK EUSKALDUNTZEKO

**Kontseiluak** egiten duen  
proposamena

Euskararen Gizarte Erakundeen **Kontseilua**

2006ko azaroan



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
**KONTSEILUA**

## **Aurkibidea**

1.- Sarrera.....	3
2.- Azterketa juridiko-legala.....	4
3.- Azterketa soziolinguistikoa.....	10
4.- Azterketa psikolinguistikoa eta didaktikoa.....	13
5.- Kontseiluaren proposamena.....	21
6.- Laburpen gisa.....	26

## 1. SARRERA

Euskal jendartearen gehiengoak ezinbestekotzat jotzen du azken bi hamarkadetan euskararen irakaskuntza bideratu duten ikastereduak gainditzea. Ahots ugari sortu dira ereduak eraberritzeak irakas-sistemari orain arte euskalduntzeari dagokionez sumatu zaizkion hutsuneak eta ahuleziak detektatu eta konpondu behar dituela diotenak, urtez urte metatuz doazen gazte euskaldundu gabeen kopuruari aurre egin eta aurrerantzean gabezia horiek bukatzeko. Gazteriaren euskalduntze osoa helburu duen irakaskuntza ahalbidetzeko, derrigorrezkoa da, aldez aurretik, egoeraren diagnostiko zehatza egitea eta orain falta diren bitarteko guztiak esleitzea. Hain zuzen ere, horretan laguntzea da irakaskuntza-sektoreko ordezkari askoren artean egin den gogoeta eta azterketa honen helburua. Ondoren aipatzen diren puntuek norabide horretan lagungarri izan daitezkeelakoan eskaintzen dira, ez dute izaera agortzailerik eta beste gogoeta eta ekarpen batzuekin osatu beharrekoak dira, baina hemen proposatzen diren auziak kontuan hartu gabe nekez erantzun ahal izango zaio gaurko egoera zinez gainditu nahi duen eraberritzelanari.

Gaur egungo ereduak ebaluatu behar dira eta helburua betetzen ez dutenak (A eta B ereduak, hain zuzen, gure ustez) baztertu. Euskalduntze kopuru altuak lortzen dituenari berriz, D ereduari alegia, oraindik eraginkorragoa izan dadin beharrezko aldaketak egin behar zaizkio. Berehalaxe ohartuko gara beharrezko aldaketak ez daudela erlazionatuak ereduaren ezaugarri hutsekin bakarrik eta behar-beharrezkoa dela sakoneko aldaketa, hizkuntza-politika oso batek bakarrik ekar dezakeena. Izan ere, euskarazko hezkuntza eta hezkuntza euskalduna ez dira gauza bera. Euskalduntasuna bere osotasunean hartzea ezinbestekoa dugu, hizkuntza eta kultura batera ikusiz; hizkuntza ez da komunikaziorako tresna hutsa, kultura baten isla eta adierazlea baizik.

Erreformatik honako neurri hauek hartzea proposatu nahi dugu:

- Ikastetxearen egoera soziolinguistikotik abiatzea.
- Ikuspegi epistemologiko bakarra edukitzea.
- Curriculum bateratua adostea.
- Hizkuntza bakoitzean lortu nahi diren kompetentzien definizioa egitea.

Plangintza koordinatu, koherente eta sendoak egitea.

## 2. AZTERKETA JURIDIKO-LEGALA

1. Hezkuntza eta hizkuntza ez normalizatuen arteko harremana, norabide bitakoa da. Batetik, hezkuntza, hizkuntza-eskubideen objektu da eta, bestetik, hezkuntza-sistemaren bitartez hizkuntza eskubideak (erabilera eta ezagutza eskubideak) eraginkor bihurtuko dira.

2. Hezkuntza-sistema herriaren gizarte garapenari lotuta egon behar da. Hezkuntza-sistemak transformatzailea izan behar du, integratzailea eta berdintasunaren bermatzailea. Euskara hizkuntza propiotzat duen lurralde anitz honetan, hezkuntzari lotutako hiru printzipio horiek karga linguistikoa hartzen dute. Hizkuntza gutxitu eta ez normalizatuen kasuan, hezkuntzak hizkuntz transformazioari bide eman behar dio, hezkuntzaren bitartez gizartearen hizkuntza-integrazioa gauzatu behar da eta, hizkuntzen arteko desorekak orekatzeko baliagarria izan behar du.

3. Euskara eta hezkuntzaren arteko harremanaren barnera murgiltzerakoan, parametro konfiguratzaile nagusietatik abiatu behar dugu, legegilea ez baita erabat aske irakaskuntzako hizkuntza-sistema ezartzeko.

- Batetik, euskararen estatusak hezkuntza arloko eragin juridikoak sortuko ditu,
- eta bestetik, hezkuntza eskubidearen hizkuntza-edukiak legegilea mugatuko du irakaskuntza-sistema konfiguratzerakoan.

Bi aurpegi horiek ardatz hartuta abia gaitzen balizko marko aldakuntza baten mugak definitzearen bila.

4. Juridikoki nola baldintzatzen du euskararen ofizialtasunak hezkuntza- sistema?

5. Ofizialtasun bikoitzak zera dakar: bi hizkuntzei estatus juridiko bera aitortzea. Baina hizkuntzen arteko berdintasun juridiko formala ez dator bat hizkuntzen egoera errearekin. Euskara eta gazteleraren egoera ez da berdina, egoera desorekatua da arrazoi politiko eta historikoetan oinarri duelarik. Ofizialtasun bikoitzak helburu berdintzailea izan behar du ardatz, botere publikoei jarduera sustatzailea burutzeraz bultzatuz. Hori da, hain zuzen ere, normalkuntza- prozesua. Ofizialtasun bikoitzaren aitorten juridikoa ez da, beraz, jarduera estatikoa, aitorten hutsarekin agortzen dena. Ofizialtasun bikoitzak normalizazio prozesua abian jartzea eskatzen du. Berdintasun juridikoak dimentsio substantziala hartzen du, desorekak gainditzeari zuzendua. Normalkuntza eskumenak Erkidegoari dagozkion eskumenak dira, beraz eskumenen aldetik habilitatua dago bere irakaskuntza-sistemaren hizkuntza- eredu arautu eta ezartzeko.

6. Ofizialtasun bikoitzaren oinarria ez da hizkuntzen arteko (edo hizkuntza komunitateen arteko) elkarbizitza soil. Ofizialtasun bikoitza ez da oinarritzen askatasun hutsetan, betebeharrak publikoak ere sortzen ditu. Horrek bi ondorio azpimarratzeraz eraman gaitu:

a- Norbanakoen ikuspegitik, ofizialtasun bikoitzak ez du babesten hizkuntza ofizialetatik bat bakarrik ezagutzeko eskubiderik. Euskara ikastea ez dago norbanakoen esku. Norbanakoek ezin baldintza dezakete hizkuntzen ofizialtasunari lotzen zaion eragin juridiko hori. Hizkuntzen estatus instituzionalak eskatuta, ikasle guztiei bermatu behar zaie bi hizkuntza ofizialen ezagutza.

b- Botere publikoek, irakaskuntza sistemaren bitartez, bi hizkuntza ofizialen ezagutza eraginkorra bermatu behar dute. Ofizialtasuna eta hezkuntzaren arteko harreman juridikoak ezaugarri berdinak ditu euskara eta gazteleraren kasuan. Irakaskuntza-sistemak helburu berdinak bermatu beharko ditu, beraz, bi kasuotan.

7. Ofizialtasunak sortzen dituen hezkuntza eraginak ez dira agortzen hizkuntza ofiziala curriculumean integratzearekin. Ofizialtasunaren «berme instituzionala» helburuak bermatzeari zuzentzen zaio. Ofizialtasunak helburuak ezartzen ditu, irakaskuntza sistema bitartekoa izanik. Irakaskuntza sistema (edo hizkuntza-ereduetatik bat aukeratzeko askatasunak) ez du euskararen ofizialtasunaren eraginak mugatzerik. Irakaskuntza-sistemak hizkuntza ofizialen ezagutza bermatu behar du.

8. Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia oso argia da horretan. Auzitegiak dioenari jarraiki:

*el Gobierno vasco hace particular hincapié en el hecho de la cooficialidad del castellano y el euskera; en efecto, todos los habitantes de Euskadi tienen derecho a conocer y usar ambas lenguas. Ello supone naturalmente que ambas lenguas han de ser enseñadas en los centros escolares con la intensidad que permita alcanzar ese objetivo. Y es de observar en ese mismo sentido que tal deber no deriva solo del Estatuto sino de la misma Constitución (AKE 87/1983, urriaren 27koa, 5 ZO eta 88/1983, data berekoa 4 ZO)*

9. Irakaskuntza-sistema tresna edo lanabes gisa hartzen da hizkuntza ofizialtasunaren eraginak bermatzeari begira. Auzitegi Konstituzionalak honakoa adierazi zuen ondoren

*De estos preceptos resulta claro que el estado en su conjunto (incluidas las Comunidades Autónomas) tienen el deber constitucional de asegurar el conocimiento tanto del castellano como de las lenguas propias de aquellas .. Una regulación de los horarios mínimos que no permita una enseñanza eficaz de ambas lenguas en esa Comunidad incumpliría el artículo 3 de la Constitución (AKE 87/1983 5 ZO eta 88/1983, 4 ZO).*

10. Hizkuntza ofizialen ezagutza, helburu bezala hartzen da, ofizialtasun bikoitzari lotutako helburu gisa alegia. Horrek Estatu eta Autonomi Erkidegoaren arteko eskumen banaketari eragiten dio. Hezkuntza arloa eskumen konpartitua bada ere, Estatuak ez du arloa arautzerik euskararen irakaskuntza eraginkorra kaltetuz.

11. Hamar urte beranduago, Auzitegi Konstituzionalak ideia berri bat gehitu zion eskema orokor horri, zehatz lotuz hizkuntza ofizialaren presentzia behikularra eta ofizialtasunaren hezkuntza-eraginak.

*«A esa finalidad de garantía del suficiente conocimiento y uso correcto de ambas lenguas han de dirigirse las actuaciones de los poderes públicos competentes en materia de educación .. que les corresponde determinar el aprendizaje de una y otra lengua .. y, en lo que aquí especialmente importa, su empleo como vehículo de comunicación entre profesores y estudiantes, de forma que quede garantizado su efectivo conocimiento ...»*

12. Eta aurrerago,

*De manera que las decisiones de los poderes públicos relativas a la enseñanza en una lengua determinada han de considerarse en estrecha conexión con las medidas de política lingüística encaminadas a asegurar el conocimiento de esa lengua (AKE 337/1994, abenduaren 23koa, 10 ZO).*

13. Era horretan, **ofizialtasuna eta hezkuntzaren arteko harremanaren hiru ezaugarriak** formulaturik agertzen zaizkigu:

a) Lehen ezaugarria: Ofizialtasunaren estatusak hezkuntza arloan eragin juridiko zuzenak sortzen ditu. Irakaskuntza-sistemak hizkuntza ofizialaren ezagutza bermatu behar du. Ofizialtasunak ezagutza helburuak ezartzen ditu. Euskara ikasteko eta ikasketaren bitartez euskara ezagutzeko beharra, ofizialtasunaren ondorioa da.

Aldiz, irakaskuntzako hizkuntza sistema bitartekoa da, izaera instrumental hutsa du. Sistemak bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eskubide / betebeharra bermatu behar du, era eraginkorrez bermatu ere. Beste modu batez adierazita, hizkuntza-askatasunean oinarritzen den hezkuntza sistemak ez du euskararen estatus instituzionala baldintzatzerik.

b) Bigarren ezaugarria: Ofizialtasunaren bermeak hezkuntza arloko eskumen banaketari eragiten dio. Hezkuntza, eskumen konpartitua izan arren, ezaugarri bereziak agertzen ditu hizkuntza ofizialen irakaskuntzari dagokionez. Horrek hiru isla ditu:

- Estatuaren esku hartzea mugatua da, ez baitu euskararen ofizialtasuna arautzerik, ezta mugatzerik ere.

- Erkidegoari dagokio bere hizkuntza-sistema arautzea hezkuntza arloan. Aurrerago ikusiko dugunez, sistema desberdinak izan daitezke.

- **Irakaskuntzak bermatu behar duen ezagutza maila, ofizialtasunaren kontzeptuari lotuta dago. Legegileak ez du hura mugatzerik.**

c) Hirugarren ezaugarria: Ofizialtasunari lotzen zaizkion ezagutza-helburuak hizkuntzen erabilera behikularraren neurria ezarriko du. Hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzeari begira beharrezkoa gerta daiteke hizkuntz erabilera kurrikular zehatza. Euskararen erabilera kurrikularra, euskararen ezagutza bermatzeko heinekoa izan behar da.

14. Hiru parametro edo ezaugarri horiek bistatik galdu gabe, jauzi bat egingo dugu, hizkuntza-sistema teorikoei buruzko jurisprudentzia aztertzeko.

15. Autonomia Erkidegoei dagokie irakaskuntzako hizkuntza-sistema ezartzea. Ahalmen horren oinarri juridikoa, hizkuntza-normalkuntzari buruzko eskumenetan aurkitzen da. Eskumen horretaz baliatuz bi sistema desberdin ezarri dira:

- Batetik, *banaketa sistema edo hizkuntza-ereduen sistema* dago. Sistema hau hizkuntza aukeratzeko eskubidean oinarritzen da. Banaketa sistema EAEn aplikatzen da, baita ere, modu partzial batean, Nafarroan eta Valentzian. Sistemak honek ikasleak ikasgela desberdinetan banatzen ditu, «segregatzen» ditu, bakoitzaren hizkuntza aukeraketaren arabera.

- Bestetik, *konjuntzio sistema edo eredu bakarraren sistema* dago. Sistema honetan, haur hezkuntzaz gora ikasleak ez dira banatzen, denak ikasgela berdinetan aritzen dira. Kasu

honetan hizkuntza biak irakaskuntza-hizkuntza bihurtzen dira. Sistema Katalunian eta Galizian aplikatzen da.

15. Auzitegi Konstituzionalak baieztatu duenari jarraiki, Konstituzioak ez du eredu elebidun zehatzik inposatzen. Irakaskuntza-hizkuntza aukeratzeko eskubidea, legez ezar daiteken aukera bat baino ez da. Hizkuntza askatasunean oinarritzen den sistema, ezar daitezkeen eruedetatik bat da. Hizkuntza-eredu bakarra (Kataluniako konjuntzio-sistema), beste aukera bat da.

16. Hizkuntza arloa askatasun gisa hartzen badugu, banaketa sistemak, teorian, ez du arazo konstituzionalik sortzen. Konjuntzio sistemak, aldiz, hizkuntza askatasunak mugatzen ditu, ikasleek edo gurasoek ez baitute hizkuntza ofizialen artean aukeraterik. Hori horrela izanik, Auzitegi Konstituzionalak hizkuntza-askatasunari ezartzen zaion mugapenaren zilegitasuna aztertu zuen, honakoa adieraziz:

*«este modelo de conjunción lingüística que inspira la ley de normalización lingüística del Parlamento de Cataluña, es constitucionalmente legítimo en cuanto responde a un propósito de integración y cohesión social en la Comunidad Autónoma» (AKE 337/1994, 10 ZO)*

17. **Integrazioaren printzipioak** zilegi bihurtzen du legegilearen aukera hori. Azpimarratu behar da hizkuntza-integrazioaren printzipioak babeska ematen diola hizkuntza-askatasunaren mugaketari. Hezkuntzaren helburua belaunaldi berriak gizartearen aritzeko prestakuntza eskaintzea da. Gizartearen hizkuntza- ezaugarrietara egokitzeko prestakuntza eskaintzea, alegia. Hizkuntza ez normalizatuen kasuan, hezkuntza-sistemak helburu transformatzailea izan behar du, neurri berean hizkuntza-desberdintasunen orekatzailea bihurtu behar du. Irakaskuntza sistemak Ikasleei bere lurraldeko hizkuntza propioan aritzeko prestaketa bermatu behar die. Kontaktuan dauden hizkuntzak ikastea, gizarteratze egokirako baldintza da.

18. Konjuntzio-sistema zilegi izanik, sistema hau eta banaketa sistema, **muga** berdinen menpe geratzen dira. Zein da muga hori? hizkuntza ofizial bien ezagutza bermatzea. Baina helburu horrek ez du esan nahi hizkuntz erabilera orekatua eskatzen denik. Hizkuntza ofizial bien ezagutza, sistemaren emaitza izan behar da, beraz hizkuntzen erabilera kurrikularraren neurria, ezagutza bermatzeko heinekoa izan beharko da. Ezagutzaren bermea, eskola-erabileraren neurria izango da.

19. Edozelan ikaslearen giza nortasunaren garapenak badu hizkuntza- aurpegirik ere. Horri lotuz, honakoa baieztatu zuen Auzitegi Konstituzionalak: *«al determinar la utilización de la lengua propia como lengua docente, los poderes públicos deben ponderar aquella finalidad (la garantía del conocimiento) atendiendo tanto al proceso de formación de la personalidad de los estudiantes .. como a la progresividad inherente a la aplicación de dicha medida» (AKE 337/1994, 11 ZO)*

20. Hezkuntza-eskubidearen oinarria bere helburuetan datza. Konstituzioaren 27.2 artikulua araberak «hezkuntzaren objektua giza nortasunaren garapen osoa» da. Jurisprudentziari jarraiki artikulua ez dio ikasleari bermatzen bere ama hizkuntzan hezituta izateko eskubiderik. Ikaslearen giza nortasunaren garapenaren bermeak muga materialak dakarzki, baina bereziki muga pedagogikoak. Giza nortasunaren garapenak pedagogia teknika egokiak abian jartzea eskatzen ditu. Hori da, hain zuzen ere, Auzitegi Konstituzionalak konjuntzio sistemari ezarri dion muga. Batetik, hizkuntza ofizial bien ezagutza bermatzea eta, bestetik, hezkuntza eskubidearen hizkuntza-edukia bermatzea.

Auzitegiaren aburuz, hezkuntza eskubidearen hizkuntza-edukia, eduki mugatua da. Bere jurisprudentziaren arabera, hezkuntza-eskubidea ez da kaltetzen irakaskuntza, hizkuntza ulergarri batez jasotzen bada. Beraz, hizkuntza oztopo ez denean eduki dozentek transmititzeko hezkuntza-eskubidea ez da kaltetzen. Aldiz, hizkuntza arrazoi dela, transmisiorik gertatzen ez bada, hezkuntza-eskubidea kaltetzen da.

21. Hezkuntzaren helburua ikasleon nortasunaren garapena izanik, euskara hizkuntza propiotzat duen lurraldeko irakaskuntza sistemak, euskararen ezagutzari bide eman behar dio. Hari horri jarraiki, esan daiteke ikasleon nortasunaren garapenak perspektiba kolektibo edo sozializatzailek baduela. Euskal Herriko gizarte testuinguruan, ikasleei bermatu behar zaie bertako hizkuntza propioaren ezagutza. Ondorioz, hezkuntza eskubidearen eduki linguistikoa mugatua izan arren, hizkuntza propioaren kontzeptuak hizkuntza-edukiez bete behar du irakaskuntza prozesua.

22. **EAEan irakaskuntzako hizkuntza sistema** hizkuntza-askatasunean oinarritzen da. Eskubide hori «legeak» aitortutako eskubidea da, baina ez da ezar daitekeen sistema bakarra. EAEko sistemak ikasleak banatzen ditu hizkuntza aukeraketaren arabera. EAEko hezkuntza-sistemari begira jarrita, erreflexiorako gaia bihurtzen da hizkuntza-ereduetan oinarritzen den sistema eta euskararen ofizialtasunaren arteko bateragarritasuna. Ereduen sistema (banaketa sistema), ez da sistema egokia euskararen ofizialtasunari lotzen zaizkion hezkuntza eraginak bermatzeko. Gaur egun hainbat txosten tekniko ditugu eskuartearen, Hezkuntza Sailak bultzatutakoak, Euskadiko Eskola Kontseiluak landutakoak, doktorego tesiak, bestelako ikerketak ... Horiek bi gauza erakusten dizkigute:

- Batetik, ereduaren sistemak ez duela ikasleon euskalduntzea kasu guztietan bermatzen. Derrigorrezko hezkuntza bukatzen duten hainbat ikaslek ez dute euskara maila egokirik agertzen, bereziki A ereduaz baliatuz hezkuntza jaso dutenek.

- Bestetik, ikasleon euskara ezagutza mailak ereduarekin lotura estua izanik, beste hainbat faktorek ere eragina dute horretan; adibidez, kontestu soziolinguistikoa, familia eta lagunen hizkuntza praktikak, hizkuntzekiko jarrerak, e.a.

23. Sistema bera ez zaio euskararen ofizialtasunari egokitzen, ezta hizkuntz integrazio printzipioari ere. Gerta ezin daitekeena da, hezkuntza sistemaren eraginez bi hizkuntza-komunitate identifikatzea, euskalduna eta euskararik ez dakiena, bien artean hizkuntza hesi bat ezarri. Hezkuntza-sistemaren izaera integratzailea, nabarmenagoa eta eraginkorragoa bihurtu behar da. Hori banaketa sistema gainditzearen bidetik lor daiteke.

24. **Banaketa sistemak lege oinarria du.** Euskararen Normalkuntza Legea eta Eskola Publikoari buruzko Legea, indar desberdinez bada ere, banaketa sistemaren oinarri juridikoak ezarri dituzte. Hizkuntza-ereduen artikulazio juridikoa Erregelamenduz ezarri den arren, legeak **hizkuntza dozentea aukeratzeko eskubidea aitortu du** (15.1 ENL eta 12.1 EPL). Eskubidea legeaz aitortu den neurrian, Administrazioa behartuta dago euskarazko eta gaztelarazko irakaskuntza eskaintzera. Eskola Publikoari buruzko Legeak hizkuntza-eredu klasikoak mantentzen ditu formalki, baina Jaurlaritzaren aldeko bidalketa jaso du, hizkuntza-ereduak berdefinitu ditzan (20.1 art). Legeko 10. Xedapen Gehigarriak, A, B eta D ereduak aipatu ditu.

25. Indarreko araubideari begira, bi ondorio azpimarra daitezke:

a- Eredu bakarra ezartzeko **lege-aldaketa behar da**, hizkuntza aukeratzeko eskubidea lege bidez aitortu delako.

b- Eskola Publikoari buruzko Legeak indarrean ditugun ereduak **aldatzearen / moldatzearen** aldeko norabidea agertzen du. Hori gauzatzeko Jaurlaritzaren aldeko bidalketa bat jaso da (ereduak Dekretuz arau ditzan). Horrek **muga juridiko nagusi** batekin topo egingo du beti, Legeak aitortutako hizkuntza aukeratzeko eskubidearekin. Hots, Dekretu bidez ez dago erabat hausterik edo desitxuraterik legez aitortutako eskubidea (irakaskuntza hizkuntza aukeratzeko eskubidea alegia).

### 3. AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

#### I. Kontuan hartzekoak:

Eskolak galarazi zuena, gaur egun berak modu berean berreskura lezakeelako ustea, okerra da. Jendarte aldaketek eskolaren egitekoa aldarazi egin dute. Jendarte-joera indibidualistek ez diote mesederik egiten euskararen aldeko lehiari. Auzo eta elkarte egiturak, familia eta jendarte egiturak ahultzen joan dira, mass medien estimulu etengabea nagusitzen ari da eta eskolaren prestigioa galduz doa. Hitz batean esanda, erreferentziak aldatzen ari dira. Eta euskararen normalizazioan eta ikasleen euskalduntzean kontuan hartu beharreko errealitatea da hori.

Benton-en arabera Irlandesaren eta maoriren berrindartze porrota indar guztiak eskolan jartzeagatik gertatu da, eskolari eman zaiolako ardura guztia (*in* Spolsky).

- Garai batean motibazio ideologikoak, kulturalak edo politikoak indartsuak baldin baziren, hori aldatu egin da. Beste irizpide batzuk hartzen dira kontuan matrikulatzeko orduan: ikastetxearen kalitatea eta prestigioa haurren eta gazteen etorkizuna bermatzeari begira. Ikastetxearen barneko giroa ere kontuan hartzen da:

- Euskarazko gaitasun maila hobearen zergatia ereduari lotzen zaio nagusiki, ISEIrenak bezalako ikerketak ikusita. Dena den, beste faktore asko daude, horien artean familiaren hizkuntza. Familia euskaldunek beren haurrak D ereduari matrikulatzen dituzte. Horrek ere eragiten du D ereduaren emaitza baikorretan.
- ISEIren ikerketen arabera, euskararen gaitasun pasiboa da gehien lantzen dena ikastetxeetan. Alegia, entzuten dena eta irakurtzen dena. Eta ez da lantzen apenas gaitasun aktiboa: hitz egin eta idatzi.
- Erregistro jaso-formal-espositiboetan landu da gehien bat, ez erregistro informaletan.
- Euskara batua da erabiltzen den ia eredu bakarra, espresibotasuna euskalkiari lotuta dagoenean. Euskara “ikastoleroa” zabaltzen ari da batuaren izenean eta gazteek erregistroak ezberdintzen jakin beharko lukete.
- Etxean euskaldunak direnentzat, zenbaitetan, erdalduntze bidea izan daiteke eskola. Euskaldun sartu, gaztelania edo frantsesa ikasi eta eskolatik irtetea bigarren hizkuntzan erraztasun handiagoa hartu dute ama hizkuntzan baino.
- Hizkuntza bat edo bestea hautatzeko arrazoi ugari egon daitezke. Fishman-en arabera, Reward systems/ordainsari sistemak. Sariak hauek izan daitezke: dirua, politikoak, erlijiosoak... Spolsky-ren arabera, biziberritze arrazoiak: pragmatikoak/instrumentalak *vs* ideologikoak integratiboak. Horiek laguntzen dute erabilera ziurtatzen edo bultzatzen. Bourdieu-ren arabera (économie des échanges linguistiques), hizkuntza botereari lotua dago. Botereak zehazten du zein izango den prestigiozko hizkuntza.

#### II. 1. *Hizkuntzen ikaste prozesuaren hainbat ezaugarri*

- ***Hizkuntza da pertsonen garapen kognitiborako eta sozialerako oinarrizko tresna, bere bilakaeran eragiten duten faktoreak norbanakoak eta sozialak dira.***
- ***Kontuan hartu beharrekoa da: inguruak duen eragina hizkuntzaren jabeakuntzan, eta ondorioz, ikasteko estrategian.***

- *Haurra eskolatzen denean ez dator 0tik, bere komunikaziorako oinarria dagoeneko ezarria dago. Eskolaren hizkuntza helburua, abiapuntu hori garatzea eta aberastea izan beharko luke. Hala ere, gero eta gazteago eskolatzen dira haurrak.*
- *Irakaslearen papera funtzezkoa da haurraren eta gaztearen eredia delako. Hala ere, eredu hori gero eta ahulagoa da.*

*Colin Baker*

*Euskal Herriko egoera demolinguistikoa eta soziolinguistikoa anitza da, beraz, tokian tokiko egoera kontuan hartu behar da. Horretarako, errealitate soziolinguistikolari buruzko eredu batzuk finkatu beharko lirateke. Ikastetxe bakoitzak bere egoera kontuan hartu beharko luke eta hizkuntzaren ikaste prozesua horren arabera egokitu beharko luke. Beraz, ikastetxe bateko hezkuntza eta hizkuntza proiektuak egiterakoan, bertako egoera demolinguistikoa hartu beharko litzateke aintzat.*

*Gainera, Colin Bakerren arabera, hizkuntzaren ikaste prozesuan lau aldagai hartu behar dira kontuan: iturria/sarrerarena, prozesuarena, testuinguruarena eta produkzioarena/ekoizketarena.*

- **Input variables (sarreraren aldagaiak):**
  - *irakaslearen ezaugarriak*
  - *ikaslearen ezaugarriak*
- **Process variables (prozesuaren aldagaiak):**
  - *irakasle eta ikaslearen arteko harremana, interakzioa*
  - *ikasleen arteko interakzioa*
  - *material kurrikularraren erabilera (ikaslearen eta irakaslearen interpretazioa materialari buruz, nola erabili behar duten)*
- **Context variables (testuinguruaren aldagaiak):**
  - *jendartearen hizkuntza helburuen izaera*
  - *komunitate gertuaren kulturari eta hizkuntzari buruzko helburuak*
  - *eskolaren helburuak eta ezaugarriak*
  - *klasearen helburuak eta ezaugarriak*
  - *curriculumaren ezaugarriak*
- **Output variables (irteraren aldagaiak):**
  - *lortutako hizkuntzaren gaitasuna*
  - *hizkuntzari buruzko jarrerak*
  - *integrazio kulturala eta jendartekoa*
  - *autoestimua: bere buruarengan duen ziurtasuna*
  - *epe luzeko ondorioak (lana lortzeko, eta abar)*
  - *curriculumaren araberrako lorpenak*

## *II. 2. Hezkuntza elebidunari buruzko oinarritzko printzipioak*

### *Hezkuntza elebidunari buruzko oinarritzko printzipiok:*

- *Aberastasunaren printzipioa: 60ko hamarkada arte kontrakoa pentsatzen bazen ere, hezkuntza elebiduna kognitiboki eta modu guztietan positiboa da.*

*Gazte elebidunek elebakarrek baino sentsibilitate handiago diete hizkuntzen esanahiei eta haien pentsatzeko modua malgutasun handiagokoa da; malguagoak dira eta ikuspuntu gehiago uler ditzakete.*

- *Elkar eraginkortasunaren printzipioa: egoera elebidun desorekatuetan bigarren hizkuntza batean eskolatua izateak ez du ondoriorik lehenengo hizkuntzaren garapenean. Kanada, gaztelania Ipar Amerikan (gaztelaniaz ikasita ez dute ingelesa gutxiago ezagutzen), ISEI. Interdependentzia dago lehenengo eta bigarren hizkuntzen garapenean.*
- *Eredu pedagogikoa: hizkuntza irakasteko bere balio komunikatiboa azpimaratu behar da bereziki. Wong Fillmorek adierazten duen moduan, hizkuntzaren ikaskuntzan hizkuntzaren funtzio potentzialak kontuan hartzen ez badira, ikaste prozesua zaildu egiten da. Alegia, ikasleen ahalmena formak (gramatika e.a.) eta funtzio komunikatiboak elkartzeko eta lotzeko landu behar da. Garrantzitsua da ikasleen gaitasun aktiboak eta pasiboak lantzea. Zoritxarrez, eskolan urteak pasa ahala ikaslea gero eta pasiboagoa bihurtzen da. Metodo zuzena erabili behar da (direct method) (Nahir). Euskara euskaraz eginez ikasten da.*
- *A bezalako ereduak ez dira eraginkorrak: Kanadan, Irlandan eta Galesen esaterako. Galesen eredu honetan haurrak ingeles elebakarrak bihurtzen dira.*

*Jim Cummins: “hezkuntza eleaniztunaren alde psikolinguistikoak”*

- *Hizkuntza gaitasunari dagokionez, murgiltze ereduak ere ez du lortzen ikasle-hiztun orekatuak sortzen. Ez du jatorrizko hiztunaren ñabardurarik izango, baina hala ere, maila altuagoa izango du beste ereduetaoek baino. Beraz, murgiltze ereduak ere bere mugak ditu eta zer esanik ez, gure kasuan. Cumminsek hitz egiten duenean, Kanadari buruz hitz egiten du (han, frantsesa da berpiztu nahi den hizkuntza).*
- *Ingurune erdaldunean bizi diren haurrak ahalik eta txikien eskolatu behar dira.*

*Garrantzitsua da, bereziki, ereduen inguruan ongi komunikatzea. Izan ere, gurasoen, irakasleen eta gizarte orokorraren babesa beharko da hizkuntzaren inguruko edozein proiektuk eraginkorra izan nahi badu.*

*Euskararen transmisioa ziurtatu behar da, belaunaldiz belaunaldi, bakoitza 0tik ez hasteko. Gainera, Israelen gertatu den eran, haurra irakasle bihur liteke etxean gurasoentzat, eta ingurukoentzat.*

## 4. AZTERKETA PSIKOLINGUISTIKOA ETA DIDAKTIKOA

Azken 30 urteotan, irakaskuntzari eta euskarari buruzko 50 ikerketa inguru egin dira, proportzioan kopuru handia inondik ere, beste herrialdeekin alderatuz gero. Ikerketa horien arabera, 1970eko urteetan plazaratu ohi ziren kezka eta galdera ugari erantzun konplutua jaso dute. Badakigu euskara nola ikasten den gehien eta ondoen. Badakigu, halaber, euskara ikasteak ez diola inolako kalterik egiten beste gai batzuen ikaskuntzari, matematika, zientzia-ikasketak eta ingelesa kasu. Badakigu euskara ikasteak ez duela arazo gehigarririk eragiten.

Hitz batean esanda, D ereduan ikasten duten ikasleek besteek bezain ondo ikasten dituzte gainontzeko gaiak eta ez dituzte besteek baino arazo pertsonal, adimenezko arazo, edo beste motaren bateko arazo gehiago izaten. Badakigu D ereduko ikasleek emaitza onak lortzen dituztela selektibitatean, eta ez dutela zailtasunik ikasketak euskaraz jarrartzeko. Dena da abantaila euskaraz ikasten dutenentzat (Etxeberria, F., 2005)<sup>1</sup>. Bestalde, badakigu, ondo jakin ere, A ereduan ikasleek ez dutela euskara oinarrizko mailan ikastea lortzen, ikerketak eta esperientzia pertsonalak eguna joan eta eguna etorri erakusten diguten bezala.

### EUROPAKO EREDUA ERABILIZ EAEn EGINDAKO IKERKETA

Eskolako elebitasunari buruz Europan egindako azken ikerketa bat ekarriko dugu hona. 2005ean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskal irakas-sistemako ikasleen euskara-mailari buruzko ikerlan baten emaitzak argitara eman zituen (ISEI-IVEI, 2005)<sup>2</sup>. Datuak arduratzeko modukoak dira; izan ere, askok zituzten aurreikuspenak gainditu egin dituzte.

Ikerketako proba, ahozkoa eta idatzia, DBHko 4. mailako –16 urteko– 1.191 ikaslek egin zuten. Proba hori ingeleserako “First Certificate” izenekoaren baliokidea da; hau da, zailtasunari dagokionez, maila ertainekoa da. Euskarazko probekin alderatuta, maila EGA tituluarena baino apalagoa da.

Eusko Jaurlaritzaren datu estatistikoaren arabera (EUSTAT, 2004), DBHko ikasleak honela eskolatuta daude, hizkuntza eredei begira: A ereduan, % 29; B ereduan, % 24, eta D ereduan, % 47. Hezkuntza Sailaren esanetan, A ereduko ikasle bakar bat ere ez da proba gainditzeko gai izan, B ereduan % 27,5ek gainditu du, eta D ereduan % 57,2k.

<sup>1</sup> Etxeberria, F. (2005): *Elebitasuna eta hezkuntza euskararen herrian*. Erein. Donostia

<sup>2</sup> ISEI-IVEI (2005): *Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4)*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

<b>EAEko IKASLEAK EREDUEN ETA EUSKARA-MAILAREN ARABERA. DBHko 4. MAILA</b>				
EREDU A	IKASLEA K	PROBA GAINDITUTA KO IKASLEAK EREDUKA	PROBA GAINDITUTA KO IKASLEAK GUZTIRA	PROBA GAINDITU GABEKO IKASLEAK GUZTIRA
A	% 29	% 0	% 0	% 29
B	% 24	% 27,5	% 7	% 17
D	% 47	% 57,2	% 27	% 20
GUZTIR A	% 100		% 34	% 66

*Iturria: ISEI-IVEI (2005): Euskararen B2 maila derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4). Eusko Jaurlaritzaren Gasteiz.*

Guztira zenbat ikaslek ez dute proba gainditu? Datu hori jakiteko, emaitzak eta eredu bakoitzean dagoen ikasle-kopurua kontuan hartu behar dira. D ereduaren (% 47), ikasle guztien % 27k gainditu zuen proba, eta B ereduaren (% 24), berriz, % 7k. Esan dugu A ereduko ikasle bakar batek ere ez zuela proba gainditzea lortu. Horrenbestez, hiru ereduetako ikasle guztien % 34k (27+7) soilik lortu zuen proba gainditzea, eta DBHko 4. mailako neska-mutilen % 66 gainditze-marraren azpitik ibili zen. Gutxienez 13 urtez euskaraz eskolatuta egon ostean, ikasle gehienak ez dira proba gainditzeko gai; hau da, ez dute euskara menderatzen.

Euskal Herriko hezkuntza elebidunaren inguruan egindako ikerlan ugarietatik atera litezkeen ondorioen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu (Etxeberria, 2005):

- EAEko ikasleen emaitza akademikoak espainiar Estatuko ikasleenak baino hobeak dira ia ikasgai guztietan. Beraz, argi dago eskola-elebitasunak ez duela eragin kaltegarria euskal ikasleen errendimendu akademikoan.
- A ereduko ikasleen eta D ereduko emaitza akademikoaren artean alde nabarmenik ez dago matematikan, irakurketan, zientzia-ikasketetan eta problemen ebazpenean.
- Euskararen ikaskuntzari dagokionez, emaitzarik onenak D ereduko ikasleek lortzen dituzte.

## **ARRAZOI PEDAGOGIKOAK**

1980ko hamarkadaren hasieran, berebiziko garrantzia ematen zitzaion haurrak eskolatzean haien ama-hizkuntza errespetatzeari. UNESCOk 1953an argitara emandako printzipioen deklarazioa<sup>3</sup> gogora ekarriz eta eskola-elebitasuneko zenbait adituren irizpideei jarraiki (Siguan eta Mackey, 1986; Piaget, Titone, 1976), ikasleak haien familiako hizkuntzan

<sup>3</sup> UNESCO (1953): Herri-hizkuntzen erabilera irakaskuntzan. Paris.

eskolatzeko aukera lehenetsi zen; hortaz, ikasle gaztelaniadunak gaztelaniaz eskolatuak izan ziren. Eskolan ama-hizkuntzan hasi behar dela dioen printzipio pedagogikoa aintzat hartu beharrekoa da, baina hizkuntzen irakaskuntzan beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira: metodologia egokia, familien motibazioa, irakasleen prestakuntza eta gogoia, hizkuntzak gizartean duen prestigioa eta estatusa eta abar (Baker, 1998).

Geroago, Mackeyk eta beste zenbait egilek argudiatu zuten gehiago baloratu beharko lirakeela irakasleen motibazioa, motibazio soziala eta gurasoen motibazioa. Euskararen kasuan, faktore horiek eragin eta indar handia dute, eta, horregatik, beste ama-hizkuntza bat duten ikasle askok ongi ikasi ohi dute euskara. Horren haritik, nabarmentzekoa da, esaterako, euskarazko eskolaren aldeko deialdiek izan ohi duten arrakasta, hala euskal eskola publikoetakoek nola ikastoletakoek: Mugak Gaingituz, Kilometroak, Korrika...<sup>4</sup>

Esparru ez-formalarekin jarraituz, euskararen munduak aparteko aberastasuna ageri du, hainbat eta hainbat jarduera, programa, erakunde, tokiko aldizkari, talde, elkarte, jai eta abar baitaude. Esan liteke, beraz, gure gizartean betidanik izan ditugula euskararen inguruko jarduera soziokulturalak eta hizkuntzaren aldeko herri-babesa. Aipaturiko ekimenetako batzuk dira, esaterako, euskararen aldeko kanpainak, udalekuak, aisialdiko taldeak, euskara dinamizatzeko taldeak, Euskal Txokoak eta euskararen irakaskuntzari lotutako jaiak.

Uda guztietan, astebururo, Euskal Herriko milaka haur eta gaztetxok parte hartzen dute euskararen erabilera sustatze edo akuilatze aldera antolatutako aisialdiko jarduera eta programetan. Gizarte-heziketaren inguruko jarduera horietako asko borondatezko ekimenak dira, eta beste batzuk erakunde pribatuek antolatuak.

Beraz, tokian tokiko ekimen borondatezko nahiz profesional ugari ditugu, aisialdia baliatzen dutenak euskararen ikaskuntza eta erabilera akuilatze nahiz motibazioa indartzeko, horretarako haur eta gaztetxoentzat interesgarriak diren bizipen-egoerak sortuz, euskara erabiltzeko gune “naturalak” sortzeko xedearekin. Esperientzia horiek urte askoan egin dira eta oraindik ere hedatuz doaz, sustatzaile pribatuen zein tokiko erakundeen – udalak, aldundiak eta abar– eskutik.

Euskarazko telebista funtsezko mugarrria suertatu zen informazioaren eta entretenimenduaren alorretan euskara erabiltzeko motibazioa eta gogoia garatze aldera, euskara hizkuntza normalagoa bihurtzeko bidean.

Eskolaz kanpoko motibazioak eta herriak euskarari eta euskara hezkuntzan erabiltzeari eskaintzen dion babesak erakarmen-indar handia dute. Horrenbestez, hastapenetan ikasle jakin batzuei (euskal hiztunei, gaztelaniadunei, eta tartekoei) zuzendutako ereduak beste eta batera jokatu dute praktikan, ikasle gaztelaniadun elebakarrak nahiago izan duten ereduak – A, B edo D– sartu baitira, haientzat taxututako irizpideei jaramonik egin gabe. Motibazio soziala, prestigio soziala, hain da indartsua ezen familia gaztelaniadun elebakar ugarik hizkuntza-mugak gaingitu eta euskaraz ikasteko erronkari heldu baitio. Kontraesana badirudi ere, posible da familia gaztelaniadun batean jaiotako ikasle bat euskaraz eskolatzea.

---

<sup>4</sup> [www.ehige.org](http://www.ehige.org), [www.korrika.org](http://www.korrika.org)

## ARRAZOI DIDAKTIKOAK

1970eko urteetan ez bezala, gaur egun euskara eta euskaraz irakasteko material ugari dago, lehen hizkuntza zein bigarren hizkuntza gisa. Zenbait argitaletzek eredu bakoitzean irakasteko testuak prestatzen dituzte, orotariko materiala eskainiz. Metodologiari dagokionez ere, euskara bigarren hizkuntza bezala irakasteko eta ikasteko jarraibideak landuago daude. Irakasleen trebakuntza hizkuntzen irakaskuntzan duela 20 urte baino osoagoa da. Azkenik, euskarazko irakaskuntzari laguntzeko material osagarri ugari dago, eta teknologia berriak euskararen alorrera heldu dira, edo alderantziz.<sup>5</sup>

Hastapenetan, 1982an, irakaskuntzarako liburuen ekoizpena bultzatu zen EIMA programaren bidez, geroago programak ikus-entzunezko materiala (1984) eta software materiala (1985) finantzatu ditu, eta euskarazko materiala ekoizten duten lantaldeak sustatzeko programa bat ere bada (1995).

## ARRAZOI PROFESIONALAK

1975eko egoera ez zen 2006an bizi duguna. Orduan, irakasle euskalduna, edo klaseak euskaraz emateko gai zena, % 5 inguru zen. Gaur egun, ikastetxe publikoetan klaseak euskaraz emateko irakasle gaituak guztizkoaren % 80 inguru dira (Eusko Jaurlaritza, 2006), eta ikastetxe pribatuetan, berriz, % 60-65.

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASLERIA, 2002-2003 IKASTURTEA				
MAILA	SARE PUBLIKOA		SARE PRIBATUA	
0 HE	3.087	% 17,41	3.876	% 33,30
1. HE	1.250	% 7,05	621	% 5,33
2. HE	13.390	% 75,53	7.140	% 61,35
GUZTIRA	17.727		11.637	


*Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza, 2006. Datuak 2002-2003 ikasturtekoak dira; oraingo portzentajeak egiaztatuta ez badira ere, apur bat altuagoak dira.*

Gaur egun, garbi esan daiteke 2. HE edo antzeko gaitasun-agiria duten behar adina irakasle edo irakasle-gai ditugula, irakaskuntza osoki euskaraz eman ahal izateko.

Bestalde, 1. HE gaitasuna-maila ere bada irakasleentzat, haiek ikasle, irakasle eta gurasoekiko harremanetarako euskara erabiltzeko gaitasuna dutela egiaztatzen duena. Azkenik, HLEA profila (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria) irakasle ez diren langileak trebatzeko taxutu da, bereziki ikasleekin euskaraz aritu behar dutenak trebatzeko.

<sup>5</sup> [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org), [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net), [www.ikastola.net](http://www.ikastola.net), [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

## EREDUEN BILAKAERA



1980ko hamarkadaren hasieran, ikasleen % 25na D eta B ereduetan eskolatuta zegoen, X ereduan % 20 inguru, eta A ereduan (orduan nagusi zen ereduan) % 35. 1983ko Dekretua ezarri eta ereduak ofizialki abian jarri zirenez geroztik, gaztelania hutseko ereduan (X) eskolatutako ikasle gehienak A eredura joan ziren. Nolanahi ere, A ereduaren aldeko joera agudo aldatuko zen, eta luze gabe etengabeko gainbeherari ekin zion.

Azken 23 urteotako bilakaerari begira, Euskal Autonomia Erkidegoan A eredua (gaztelaniako eredua) % 48tik % 7ra pasa da 1983-84 ikasturtea eta 2004-05 ikasturtea bitarte (EUSTAT, 2006). 2003-2004 urteko matrikulazioa honakoa izan zen: A eredua, % 7; B eredua, % 29; D eredua, % 64, eta X eredua, % 0,5.

Hainbat arrazoi direla medio (arrakasta, prestigioa, estatusa, esperientzia, motibazioa eta abar), familia askok eredu euskaldunenak hautatzen dituzte. Sozialki, praktikan, A eredua bazterrean geratzen ari da, eta, itxura guztien arabera, denboraren joanarekin are zokoratuagoa geratuko da, erabat desagertu arte. Badirudi familiek argi ikusten dutela A ereduak ez dituela emaitza onak lortzen euskararen ikaskuntzari dagokionez, eta hezkuntzako aukera gisa aintzat ez hartzea erabaki dute. B eredua, mistoa, bere horretan dago, ikasleen % 30 inguru hartuz.

## GIZARTE-ZATIKETAREN ARRISKUA

Gure ikerlanetan eta beste zenbait egilerenetan (Etxeberria, 1995; Elzo, 2002)<sup>6</sup> egiaztatu dugu bi eskolatzeko-modu egotea, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, kaltegarria dela

<sup>6</sup> Elzo, J. (2002): *Los jóvenes vascos*. Fundación Santamaría. Deusto.

Etxeberria, F. (1995): *Análisis de las actitudes y comportamientos culturales de los alumnos de Enseñanza Media del País Vasco*. Euskal Herriko Unibertsitateak finantzatutako ikerketa

ikastetxe barruko bizikidetzarako, batez ere Bigarren Hezkuntzan. Badirudi bi eskolatzemodu horiek bi pentsamolde ezberdin, bi talde bereizi –euskal hiztunena eta gaztelaniadunena– sortzeko bidea eman dezaketela, eta bi taldeen elkarrekiko jarrera eta aurreiritziek neurri batean ikasgelaren hizkuntz eredu dutela jatorria. Gizarte-zatiketaren mehatxupearan bizi den gizarte batean, ez dirudi komenigarria denik eskolan bi eredu bereizi baliatzea.

Hain zuzen ere, Kataluniako hezkuntza eta hizkuntzari buruzko legedian (1983ko Hizkuntza-Normalizazioari buruzko Legea eta 1998ko Hizkuntza Politikako Legea)<sup>7</sup> zehazki adierazten da ikasleak ez direla beren ohiko hizkuntzaren arabera bereiziko. Kataluniako esparru sozial eta politiko guztiak horrekin bat datoz, bai eta Auzitegi Nagusia zein Auzitegi Konstituzionala ere. Arrazoibide hori Kataluniako gizartearen baliozkoa bada, gure ustez euskal gizartearen ere berdina defenda liteke.

Kulturartekotasuna, bestelakotasunaren integrazioa, eta bizikidetzaren sustatu nahi ditugun heinean, hainbat jatorritako ikasleak egotea eskola- eta gizarte-integrazioaren beste elementu bat bezala ulertu behar da. Planteamendu hori da, hain zuzen ere, ikasle etorkinak eskolatzeko orduan onetsiena. Era berean, ikasleak elkarrekin egotea defendatzen dugu, gela berean eta eredu bakar batean, integrazioaren bidean sakontzeko eta bi pentsamolde edo gizatalde sor daitezkeen eragozteko.

Jakin badakigu zenbait kasutan hizkuntza-eredua kultur curriculum jakin bati loturik doala, eta, horregatik, familia dezentek D ereduaren errezeloz ikusten dutela, hizkuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Horrek eztabaida bat plazaratu du, jada abian dena<sup>8</sup>, gure eskoletan irakatsi behar diren edukien, balioen, eta jarreraren ingurukoa. Beharrezkoa izango da curriculumaren gai horretan ados jartzea eta denon artean zehaztea eskola-curriculumean zein eduki eta balio sartu behar diren. Modu horretara, gero eta argudio gutxiago izango ditu euskararen irakaskuntzan intentsitate ezberdineko ereduak egotea defendatzen duenak.


## **IKASLE ETORKINEN ESKOLATZE ETA GIZARTERATZEA.**

Ikasle etorkinak gizarteratzeko eginbidean, eskolako hizkuntza-ereduen sistema hautespen eta baztertze-bide bihurtzen da. A ereduak, leku askotan, gizatalde marjinalak eskolatzeko aukera bihurtzen ari da. Gaur egun, eskola batzuetan A ereduak ijitoak, etorkinak, arriskupearan dauden ikasleak eta, oro har, zailtasun sozial eta ekonomikoak dituzten ikasleak eskolatzen ditu, baztertze-prozesuan murgilduta dauden ikasleentzako ghetto modukoa bilakatuz.

Jarraian doan taulan, ikasle etorkinen eskolatzearen datu estatistikoak jasotzen dira, haien hizkuntz ereduaren arabera.

<sup>7</sup> [http://www6.gencat.net/llengcat/legis/cat/lpl\\_cap3.htm](http://www6.gencat.net/llengcat/legis/cat/lpl_cap3.htm)

<sup>8</sup> Gaur egun bi proiektu ezberdin daude euskal eskola-curriculumaren zehazteko lanean



*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2006*

Ikasle etorkinen portzentajeak eta ikasleen guztizkoenak oso bestelakoak dira. Datu horiek erakusten dute euskal eskoletan A ereduaren eskolatzen diren ikasle etorkinen portzentajea ikasleen guztizkoarena baino bi aldiz handiagoa dela. Era berean, ikasle etorkinen % 22,8 baizik ez da D ereduaren eskolatzen, eta guztizkoari erreparatuz gero, berriz, ikusten dugu ikasleen % 51 baino gehiago eredu horretan eskolatuta dagoela.

### Zergatik hautatzen dituzte ikasle etorkinek A eta B ereduak proportzio handiagoan?

Ez dago faktore eragile bakarra, eta, gainera, zenbait aldagaik indar handiagoa dute leku batzuetan, eta txikiagoa beste batzuetan. Faktore asko daude elkarreraginean. Zenbait kasutan, familiaren nahia da nagusi, beste zenbaitetan ezjakintasuna. Batzuetan ikastetxearen beraren interesa bestelako faktoreei gailentzen zaie, ikasle gutxiegi dituztelako, edo matrikula gehiegi. Batzuetan udaleko edo hezkuntzako arduradunak dira, paradoxikoki, ikasleak aipatu A eredura bideratzen dituztenak. Itxura batean, arrazoi bat baino gehiago egon ohi da ikasle etorkinek azkenean eredu gaztelaniadunen aldeko hautua egitearen oinarrian (Zapata, M. 2005; Septien, J.M., 2006)<sup>9</sup>. A eredua aukeratzeko arrazoietakoa asko hizkuntzaz kanpokoak dira; faktore garrantzitsuak dira, esaterako, ikastetxe jakin batek eskain ditzakeen bestelako abantailak: zerbitzuak, hurbiltasuna, ekonomia eta abar. Gure ustez, hori aintzat hartu beharrekoa da familia etorkinei aholku emateko orduan, kontuan izan dezaten euskararen ezagutzarik gabe beren seme-alabek bazterketa pairatzeko arrisku handiagoa izango dutela. Zer gertatuko da hamar edo hogeitun urte barru euskara ikasten ez duten haurrekin? Zer-nolako eskola- eta gizarte-integrazioa eraikitzen ari gara? Frantzian berriki gertatutako gatazkek zuhur jokatzera eramane behar gintuzkete.

### ONDORIOZ

Arrazoi horien guztien argitan, gure iritziz A ereduak ez du balio ikasleek euskara ikas dezaten. B ereduak ere ez du helburu hori lortzen, D ereduari hurbiltzen zaionean izan ezik.

Laburbilduz, euskara trinkoen lantzen duen eredu bakarraren aldeko hautua honako faktore hauetan oinarritzen da:

- Euskara modu eraginkorrean ikastea ahalbideratzen duen bakarra da.
- Hezkuntza-legediak agintzen duenari lotzen zaio.

<sup>9</sup> Septien, J.M. (2006): *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. Arartekoa. Gasteiz  
Zapata, M. (2006): *Etorkinak eta hizkuntza-ereduak. Hasierako Diagnostikoa*. Kontseilua  
Etxeberria, F. (2006): *Ikasle etorkinak eta euskara*. Jakin Aldizkaria. 154. zenbakia.

- Familien artean joera nagusia da.
- Behar adina trebatutako irakasleria badago.
- Ikasmaterial eta testu egokiak badaude.
- Ikasleen arteko diferentzia soziokulturalak gaitzen laguntzen du.
- Etorkinen gizarteratzea errazten du.
- Beste herrialdeetako esperientzien bermea du.

Gure proposamena eredu trinko baten aldekoa da, egungo ereduak baino hein handiagoan bermatuko duena ikasleek euskara nahiz gaztelania mendera ditzatela, baita egoera gaitzenetan ere (familia gaztelaniadun elebakarrak, ikasle etorkinak).

## 5. KONTSEILUAREN PROPOSAMENA

Derrigorrezko Ikasketak bukatzean Euskal Herriko gazteak euskaldun eleaniztunak izatea litzateke eskolari ezarri nahi diogun hizkuntza-helburu nagusia. Hau da, Hegoaldean euskara eta gaztelania eta Iparraldean euskara eta frantsesa hizkuntzak erraztasunez erabiltzeko gai izatea. Gehi ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektuan txertatuko dituenak.

Horrela jokatzeko arrazoi nagusia, Eskolaren funtzio eraldatzailea, integratzailea eta berdintasunaren aldekoa bermatu nahian aurkitu behar dugu, baita hizkuntzari dagokionean ere. Euskaldun eleanitzak eta kulturantzak hezi nahi eta behar ditugu.

Aipatutako helburua betetzeko jarraitu beharreko urratsak eta ildoak honako hauek dira:

- Erreformari babesa emango dion legea behar da: lege berri baten beharra agerian gelditu da azterketa juridiko legalean, eskolako hizkuntza aukeratzeko askatasunaren aldarrikapen faltsuaren aurrean gure gazteek euskara ezagutzeko duten eskubidea kokatu behar dugu. Euskara ikastea ahalbidetzen ez duen bidea ez da hautatzeko usteko eskubide gisa aurkeztu behar. Eskolak euskaldun eleanitzak sortu behar ditu dagoeneko esan dugun bezala, beraz, horixe da hautu bakarra.
- Euskal Herri osoan zabaldu behar da euskararen normalizazioak eskatzen duen hizkuntza estatusa, hau da, euskara berezkoa den neurrian ofiziala izango da, ezagutu beharrekoa eta bere egoera diglosikoagatik lehentasunezkoa. Horrek euskararen ezagutza unibertsalera bultzatzen gaitu zuzenean. Ezagutza unibertsal horren definizioa osatu behar dugu: zer da hizkuntza bat jakitea? Erraztasunez jakitea? Hizkuntza bakoitzaren kompetentziak zehaztu behar dira. Guk Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumean kompetentzia honen inguruan esaten duena ekarri nahi dugu gogora:
  - *“Gizarteko hainbat alorretako hitzezko eta idatzezko edozein testu behar bezala eta kritikoki ulertzea, eta irakurtzeko eta entzuteko gaitasuna helburu pertsonalei, sozialei edo akademikoei erantzuteko erabiltzea. Euskararen eta harremanetarako hizkuntzaren kasuan, ikasleek bere kasako erabiltzailearen (B2) maila lortu beharko dute; Europako beste hizkuntza baten kasuan, berriz, bere kasako erabiltzaile maila lortuko beharko dute (B1); eta, Euskal Herriko harremanetarako beste hizkuntzaren kasuan, berriz, oinarritzko erabiltzaile maila. (DEEC-Hizkuntzak eta literatura.102.or)”*
- Azken helburua bizitzako esparru guztietan hizkuntza bat erabiltzeko kompetentzia (ikasketak jarraitzerakoan, harremanak ezartzerakoan...) lortzea da.
- Egoera hori lortze bidean hurrengo ildoak proposatzen da:
  - Lehentasunezko izaerari men eginez irakas-hizkuntza EUSKARA izango da Euskal Herriko eskola, ikastola eta ikastetxe guztietan. Hau da, euskaraz bizitzeko aukera bermatu behar da ikastetxeetan. Hori baita modurik eraginkorrena euskara ezagutzeko.

Horrek arlo desberdinetan honako ondorio hauek ditu:

*Langileriari dagokionez:*

Irakasleak, zerbitzuetako langileria (atezainak, jangelako langileak, garbitzaileak,...) denak hartu behar dira kontuan, eskola ematen dutenak eta zerbitzuak eskaintzen dituztenak, denek betetzen baitute egiteko hezitzailea. Sistemak euskaraz lan egin behar du zeregin guztiak barne. Askotan arreta handia jarri dugu irakasleriaren prestakuntzaren arloan zerbitzuak eskaintzen dituzten bestelako langileak alboratuz eta horrek ezinezko bihurtzen du euskararen normalizazioa ikastetxeetan erdal elebakarrak zuzenean eragiten duelako hizkuntza-ohituretan.

Langileria horren prestakuntza oinarritzkoa da. Garbi izan behar dugu bestalde, prestakuntza hori ez dela hizkuntza prestakuntza soilik, bertako kulturaren errotutakoa behar du horrek duen funtzio motibatzailearengatik, besteak beste. Beti ere, hizkuntzaren funtzio komunikatiboan, ahozkotasunean, ongi prestatzeak duen garrantzia kontuan hartuz.

Euskara curriculum osoan hartu behar da kontuan. Ez bakarrik hizkuntza irakastea, matematikan, gizarteetan eta gainerako ikasgai guztietan ere ongi egokitua izan behar du. Hizkuntzen arteko interdependentzia aintzat hartuz Hizkuntza Proiektu osoa diseinatu behar da.

Irakaslearen egitekoak garrantzi handia du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Horregatik, hasierako prestakuntza eta etengabekoa hobeto diseinatu behar dira.

Langile berri guztiak euskaldunak eta gutxienez elebidunak izatea da behar dugun sarrera baldintza, merituzkoa behar du izan hala ere, eleaniztasuna. Belaunaldi berriak euskaldunduko dituen profesional taldeak euskara ezagutu behar du, euskal kultura ezagutu behar du eta eleaniztasunaren baloreak zabaltzeko behar ditu ilusioz eta gogoz.

Arestikoarengatik guztiz ulergarria da Magisteritza Eskoletan irakasle euskaldunak formatzea. Gaur egun, oraindik ere, Magisteritza eskoletatik profesional ez euskaldunak formatzea ulertzen ez den zerbait izateaz aparte arrazoirik gabeko diru xahuketa da. Izan ere, behin sisteman sartu ondoren Administrazioek hartu behar badute haien gain profesional horiek euskalduntzeko diru zama baliabide horiek ezin izango dira inbertitu zerbitzuaren kalitatean eragiten duten beste arlo batzuetan, ratioaren jaitsieran esate baterako.

Ratio-jaitsiera eman beharreko zerbait da emaitzak hobetu nahi baditugu, bereziki euskararen egoera ahula den inguruetan kokatuta dauden ikastetxeen kasuan.

Euskara ezagutzen ez duten irakasleen kasuan irteera egokia bilatzeko jorratu beharreko bidea administrazioa eta sindikatuen arteko akordio da. Izan ere, garbi ikusten dugu langileon eskubideek ez dutela oztopo izan behar gure gazteek euskaldun izatearen helburua lortzeko bidean, baina era berean, lan- eskubideak izan badituzte eta ondorioz, sindikatu eta Administrazioei dagokie irtenbidea bilatzea. Eskola ez dago irakasleen zerbitzura, eskolaren xedea ikasleak eta beren eskubideak dira.

Langileria egonkorra behar da ikastetxeetan, horretarako behin behinekotasun indizeak murriztu behar dira ahal den guztia. Era berean, inguru hurbilari lotutako hezkuntza-proiektuak sortu behar dituzte ikastetxeek. Berebiziko garrantzia du, esate baterako, lekuan lekuko hizkuntza eredu erabiltzea eta hori bakarrik berma dezakete inguruan ongi errotutako eta finkoak diren irakasleek eta profesional zerbitzu emaleek. Ikastetxeek nolabaiteko autonomia behar dute langileen perfilak aukeratzeko arestian aipatutakoa errealitate bihurtzeko.

Hizkuntza-laguntzaileen figuraren sortzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Hauen zeregin nagusia euskaldundu gabeko ikasleei eskola sarreran eta ikasketa- prozesuan gustura sentitzen laguntzea izango da.

Hizkuntza Normalkuntza teknikarien lanaren birdefinizioa eta haien zereginaren indartzea jorratu beharreko beste bide bat da.

### **Gurasoei dagokienez:**

Gurasoen zeregina ikas-prozesuan eta eskolaren zereginan, oro har, ezin dugu ahaztu. Gurasoek euskararen ezagutza eta erabileraren aurrean duten konpromisoa areagotzeko bideak jarri behar ditu Administrazioak eta eskolak berak. Gurasoak dira gazteentzat eredu nabarmena eta begi bistakoa da haiek hartzen dituzten jarrerak ereduak direla onerako zein txarrerako eta hizkuntza ohituretan eragiten dutela. Beraz, hizkuntza-politika egoki batek aukerak eskaini behar dizkie gurasoei euskara ikasteko, eta eskolak euskararen erabilera erraztu behar du.

### **Ikasleei dagokienez:**

Errespetuz hartuak eta artatuak izango dira, goxotasunez, etxetik dakarten ama-hizkuntza edozein delarik ere, hizkuntza horren balioa eta ekarpena adieraziz, hizkuntzak duen atxikimendu afektiboa kontutan hartu beharra dago eta euskararen murgildurik ariko dira hasiera-hasieratik. Taldekatze motak aukeratzeko ikastetxe bakoitzak autonomia izan behar du. Honek ez du suposatuko taldekatze horren arabera, eskola desberdinak sortuko direnik, ez dugu nahi berriro ere ikasleak hizkuntza dela eta bereiztea.

Etorkinen kasuan, aurre egin beharreko erronka soziala dugu hau. Hauek ere, Euskal Herrian bizi direnez, euskal herritar gisa eskubide eta betebeharrak dituzte. Behingoz, mota honetako erronkari erantzun egokia eman nahian erantzukizun kolektiboa proposatzen da, bai bitartekoen eskaintzan eta baita erantzunaren banaketan ere. Erreformatu balio du bai etorkinentzat bai euskara ikasi behar duten bertakoentzat ere. Edozein kasutan etorkin talde nagusiei erantzunez eta denborak eta akulturazioak eragiten duten kalteak murrizteko helburuz, haien ama-hizkuntza kontuan hartu beharrekoa da.

### **Ebaluazioa**

Ikaskuntza prozesuan zehar, ziklo bakoitzaren bukaeran, hizkuntzaren garapenak ebaluatua izan behar du. Ebaluazio hori, orain arte norbanakoarena izan bada ere taldearena ere izatea beharrezkoa da. Taldeari ere ezarri beharko zaizkio indartze neurri horiek emaitzek horrela adierazten badute eta ezarritako helburuetatik urruntzen ari bada neurtutako talde hori.

Hainbat indartze neurri izan daitezke, hona adibide batzuk: gela-taldearen bikoizketa, irakasle laguntzaileen gehitzea, ikasle-ratioaren jaitsiera...

Nolanahi ere, sistema maiztasunez ebaluatzeko neurriak eta bitartekoak aurreikusi behar ditugu. Ebaluazio jarraia da egokiena, dudarik gabe, aukerak eskaintzen dituelako neurri pertsonalizatuak lantzeko bai norbanakoaren aurrean baita taldearen aurrean ere.

*Ikasmaterialak ere ebaluatu behar dira, mota guztietakoak, idatziak, ikus-entzunezkoak eta teknologia berriekin zerikusia duten bestelakoak ere. Materialezko hizkuntza eredu egokiak eskaini behar dituzte eta horiek ebaluatzen lan taldea sortzea ezinbestekoa izango da.*

## **Ikastetxeak**

Eskoletako egoera berri honi aurre egiteko beharrezko izango ditugu baliabide material eta pedagogiko berriak, baita moldatzealdi bat ere. Beharrezko erreformak ezin du *sine die* luzatu. Gure ustez, 5 urteko epea nahikoa da ikastetxeak erreformaren eskakizunen barruan jokatzen hasteko. Bestalde, hainbat lan tekniko osagarri abiatu behar dira jadanik ziurtasun handiagoz aritzeko. Hona hemen hainbat:

- Kultura eta hizkuntza txertatuko dituen curriculumak Euskal Herri osoan aplikatzeko modukoa.
- Bide pedagogiko berriak jorratu behar dira bereziki ahozotasunaren lanketa indartuz eta hizkuntzaren erabilera bultzatuz.
- Curriculumean txertatutako kultura eta hizkuntzaren uztarketa erraztuko duen materialgintza berria sortu behar da baliabide ugariak eskainiz zeregin honetara.
- Garrantzia du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikastetxeak duen antolaketak. Nola egiten den hezkuntza proiektua, nolakoa den parte hartzea, nola banatzen diren ardurak eta egitekoak eta nolakoa den erantzukizuna, nola hartzen diren erabakiak eta nola ebaluatzen den guztia.
- Eskolan eman beharreko aldaketen artean bereziki garrantzitsua da ikastetxe bakoitzak bere barnean normalizazio-prozesua hastea, edota aurretik ezarria badu, azkartzea, teknikarien betebeharrari zor zaion garrantzia emanez eta ikastetxe osoaren proiektua eginez:
  - o Eremu guztietan euskaraz bizitzeko aukera bermatuko du ikastetxeak, jolastordu, jangela garaietan eta eskolaz kanpoko ekintzetan ere.
  - o Eskola komunitatearen adostasuna eta lankidetzaren ezinbestekoa da hezkuntza-proiektua diseinatzeko eta garatzeko.
  - o Inguruko jendartearekin eta jendarte eragileekin harremanetan jarriko da ikastetxea plan estrategiko baten gidaritzapean. Jendartearen ikasleak euskaraz bizitzea ahalbidetzeko lehen unetik lan egin behar da jendarte eragileekin: aisialdi taldeak, kultur ekintzak... Eskola jendarteko partaide izango da modu sistematikoan ingurune hurbilaren bizimodu sozial eta kulturalen.

## **Administrazioa**

Era guztietako bitartekoak jartzea eta martxan jarritako normalizazioa etengabe ebaluatzea izango dira Administrazioaren zeregin nagusiak hezkuntzako etapa guztietan. Beti ere, behar handiagoa dutenei laguntza handiagoa eskainiz. Horiekin batera, corpus juridikoaren egokitzapena ere aipatu behar dugu tresna eraginkorra baita euskararen normalizazioaren

zerbitzuan jarriz gero. Administrazioa eta herri eragileen artean elkarlan sendoa eta oparoa behar da emaitzak eskuratzeko, beraz, eskola osatzen duten mota guztietako mugimenduekin etengabeko harremana gauzatzeko bideak sortu behar ditu Administrazioak.

Behar bereziei erantzuteak hezkuntza zentro guztien arteko elkarlana eskatzen du. Ildo horretan, administrazioei hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean hezkuntza-eskubideak errespetatuko dituen antolaketa bideratzea dagokie.

Berebiziko garrantzia hartzen du arlo honetan 0-3 zikloak eta horren euskarazko eskaintzak Euskal Herrian. Izan ere, hizkuntzen ikaskuntzaz ari gara eta hasiera hasieratik murgiltzeak berebiziko garrantzia du derrigorrezko ikastaldia hasten den unean ikasleak egoki abia daitezen.

Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea euskalduntzea ere estrategikoa bilakatzen da lan mundua euskalduntzerakoan. Beraz, epe labur-laburrean egin behar den zerbait da eskaintzaren erabateko euskalduntzea.

### **Hizkuntza-politika**

Eskolaren ahalegina alferrik ez galtzeko ezinbestekoa da hizkuntza politika berri eta sendo batek neurri eraginkorrak hartzea. Gure ustez, horixe da gako nagusia ez bakarrik eskolak bere helburua erraztasun handiagoz lortzeko baizik eta, euskararen normalizazioa bera egoki garatzeko ere. Hizkuntza politika horrek honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Toki Administrazioetik Administrazio Nagusirainokoa.
- Sektoreartekoa eta Sailartekoa.
- Helburu eta epe zehatzak dituen.
- Baliabidez ongi hornitua.
- Norbanakoak eta espazioak euskalduntzeari begirakoa.
- Hizkuntza eskubideen bermea eskainiko duena.
- Euskal Herri osoan aplikatzeko modukoa.
- Ikuspegi osoa duena.
- Instituzioekin eta gizarte-eragileekin (Euskalgintzarekin bereziki) egoki koordinatua.
- Erabilera sozial normalizatua helburu duena.

## 6. LABURPEN GISA

Bizikidetzan aurrera egiteko, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko, hizkuntzen arteko desoreka nabarmena orekatzen joateko eta Euskal Herriko jendartea kohesionatzeko, ondorengo neurriak hartzea litzateke, gure ustez, egokiena:

- Euskararen normalizazioak legearen babesa izan behar du. Derrigorrezko Hezkuntzak euskara erraztasunez erabiltzea bermatu behar du.
- Euskararen egoera diglosikoaren eraginez lehentasunezko estatusa behar duenez irakas-hizkuntza EUSKARA izan behar du.
- Hezkuntza Sistemara sartu behar duten langile guztiek euskara ezagutu behar dute.
- Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-normalizazio plana garatu behar du. Ziklo-amaiera bakoitzean egindako ebaluazioek bidea eman behar dute hizkuntzen trataeraren jarraipena egiteko eta helburua lortzeko hartu beharreko neurriak bideratzeko.
- Egoera soziolinguistikoa eta psikolinguistikoa kontuan hartuz, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-proiektuan euskarazko murgiltze osoa zehaztuko da.
- Haur eskolek euskararen normalizazioan joka dezaketen paper garrantzitsua kontuan hartuz, ezinbestean indartu beharreko ildo da.
- Haur hezkuntzatik hasi, eta urtez urte, modu planifikatuan, euskara ongi ezagutzen duten hezitzaileak ziurtatzen joan behar da.
- Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan eskaintza osorik euskaldundu behar da. Lantegietara hizkuntza aldetik ere ongi prestatuak joan daitezten.
- Hezitzaileen prestakuntzan hizkuntza eta kultura batera joan behar dute, hizkuntza ez baita hitz huts batzuen transmisioa. Kolektibitateak, balioek, sentimenduek, identitateak eta abarrek garrantzia handia dute.
- Materialgintza euskal curriculumaren normalizaziora egokitzen joan beharra dago. Horretarako bitarteko egokiak zehazten joan behar da.
- Hezkuntza proiektua inguru hurbilarekin harreman zuzenean egin behar da. Udalekin eta herriko elkartekin elkarlanean aritzeko euren hezkuntza- eta hizkuntza-proiektuak egokituz.
- Behar bereziei erantzuteak hezkuntza-zentro guztien arteko elkarlana eskatzen du. Ildo horretan, administrazioei hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean hezkuntza-eskubideak errespetatuko dituen antolaketa bideratzea dagokie.
- Eskolaren ahaleginak fruitua eman dezan hizkuntza-politika eraginkorra behar da.
- Erreformatik behar duen inbertsioa aldeztu behar da.